

Bizitzak GURE NEURRIRA

PREKARIETATEA BORROKATZEKO GAZTE ALDARRIAK

Ernai gazte antolakundeak bizitzaren sustengua erdigunean jarriko duen eredu politiko, sozial eta ekonomikoa defendatu eta bultzatzen du. Hala, kapitalismo patriarkarrak ebazten duen lanaren antolaketa soziala eta honen parte hartze eredu sozial eta politikoa iraultzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Klaseen eta sexu-genero sistemaren banaketa gainditzen duen gizarte antolamendu baten beharraz ari gara. Identitate eta gorputz guztiak aitortuko dituen parte hartzeko eta bizitzeko eredu aktibo eta protagoniko bat bultzatzeaz.

Nola ekin norabide horretan? Langileria oro har, eta Euskal Gazteria modu zehatzago batean, jasaten ari den prekarizazio prozesuari modu kolektibo batean aurre egitea premiazkoztat jotzen dugu. Esplotazioari aurre eginez, bizi baldintzen hobekuntza eraginez eta parte hartze eredu aktibo bat sustatuz. Horretarako hainbat neurri proposatzen ditugu, modu ireki batean. Adostasun zabalak eraikitzeko eta elkar ekitea bultzatu nahian.

Euskal Herrian, luze eta zabalean, gazte eta herri mugimendu anitza atzematen dugu eta jauzi kuantitatibo eta kualitatiboak eragiteko elkarren arteko elkarlana ezinbestekoa izango dela iragartzen dugu. Norabide berean ekin dioten mugimenduei aitortza berezia egin nahi diegu, esate baterako, pentsionisten mugimenduari edota mugimendu feministari. Mugimendu hauen esperientzietatik ikasi eta erakutsitako sen eta espiritu berdinetik gazte mailan ere norabide honetan urratsak emateko deia zabaldu nahi dugu.





Gurea da hitza eta erabakia

Ordezkaritzan oinarritutako parte hartze eredu demokratiko burgesak dituen mugak argiak dira. Kapitalismoa boterea eta aberastasuna gero eta esku gutxiagotan pilatzen dituen sistema da, eta bazterketa sozialean eta desmobilizazio politikoan oinarritzen den sistema soziala da. Parte hartze politikoa delegaritzan oinarritzen da, adierazpen komunitarioen eta herri mugimenduaren ahotsa isilaraziz eta patronalari, botere faktikoei eta instituzio antidemokratikoei men eginez.

Euskal Herria bi estaturen menpe eta 4 barruti administratibotan zatikatua dagoen nazioa izanik bere eredu politiko, sozial eta ekonomikoa erabakitzeko eskubidea ukatua du. Eraldaketa soziala espainiar eta frantziar markotara azpiratua dago, instituzio arrotzek Euskal Herriaren erabakimena mugatzen dutelarik. Erabakitzeko eskubideak bizitzako ezein alorretara eramateak zentzu sakonagoa hartzen du gurean hortaz.

Logika sozial hau irauli beharra dago, Euskal Herrian zentratua egongo dena eta parte hartze aktibo, jarraikor eta erabakiorrari mesede egingo diona. Euskal eragileok gure jardun politikoa autodeterminazio eskubidearen gauzapan praktikoaren bueltan egituratzeari ekin behar diogu, Euskal Herrian bildutako gehiengoan adostasunei men egingo diona eta Espainiar eta Frantziar estatuek inposatzen dituzten mugak gaindituko dituen (desobedientzia eginez).

Zentzu horretan ondorengo neurriak babestu, bultzatu eta exijituko ditugu.



Euskal Herriak bere osotasunean edota egun osatzen duten eremu administratibo bakoitzak bere status politikoaren inguruan galdetzeko eta erabakitzeko bermeak zehaztea. Horretarako tresnarik eraginkorrena erreferenduma da.



Parte hartze prozeduren sistematizazioa, Udalgintzatik bultzatutako parte hartze herrikoari garrantzi berezia eskainiz. Dagoeneko antolatuta dauden gazte eta herri mugimenduei ahotsa eta erabakigarritasuna ematea, botere faktikoei, patronalari eta egitura antidemokratikoei kenduz. Parte hartzearen prozedurak isolatuak, partzialak eta estetikoak izatera ez daitezzen mugatu, eredu aktibo, komunitario eta erabakiorra bultzatzea. Alegia, parte hartze herrikoia sustatzeko prozedurak eta metodologiak bultzatzea, dagokion informazioa eskainiz eta parte hartze espazioak erraztuz.



Kalea guztiona da, gazteriaren eta gainontzeko herri sektoreen

topagunea. Honen burokratizazioak zein jarrera mugatzaile eta penalak kaleko bizi-tza herrikoia suntsitu egiten du. Hortaz, espazio publikoaren erabilerarako araudi merkantilista, burokratiko eta mugatzailea bertan behera utzi behar da.



Euskal Herrian bizi nahi dugu

Prekarizazioa, pobretzea eta dependentziaren aregotzea dira bazterketa sozialaren bultzatzaile nagusiak. Esplotazioaren aregotzea, soldaten murrizketa, zorpetzea, lan baldintzen kaskartzea, ezkutuko lanaren errekonozimendu eza, pribatizazioak eta babes sistemaren suntsiketa kapitalismo patriarkarraren ondorio zuzenak dira. Aldi berean, jendarte desmobilizazioa, deserrotze soziala eta komunitatearen deseraikuntza dira arazo hauen iturburuari kolektiboki aterabideak emateko traba nagusia. Ihesbide indibidualak arazo konponbide bilakatu nahi dituzte sistemak, eta kolektibotasunaren kontra egiten du indibidualizazio prozesu honek.

Arreta berezia merezi du babes sistemaren suntsiketarako enpleguaren prekarizazio estrategian duen harremanak: zenbat eta babesgabeago, orduan eta lanpostu miserableagoak betetzera behartuago gaude.

Hortaz, soldatapeko lana erdian jartzen duen logika arbuizatu dugu eta lanaren bestelako banaketa soziala defendatzen dugu: esplotaziorik gabekoa eta lan guztien aitortza egiten duena. Bizi lan egiteko paradigmatik, lan egin bizitzeko paradigmara jauzi egitea defendatzen dugu. Bestalde, eskubide sozialak lanpostura eta hiritartasunera mugatzen dituen ikuskera mugatzailearen aurka gaude. Are gehiago, eskubide objektibo bezala aitortutakoak eskubide subjektibo errealek bilakatu behar dira. Eskubide horiek bermatzeko neurri errealek ebatzi behar dira, aurrekontu partiden menpe egon gabe eta joko politikotik at.


Norabide horretan ondorengo neurriak babestu, bultzatu eta exijituko ditugu.



Euskal Herrian lan egin eta bizi den oro da euskal herritarra, eta dagozkion eskubide indibidual eta kolektibo oro aitortu behar zaizkio. Hiritartasun aitortza, lan sarbide eta errekonozimendua, parte hartze politikorako aukerak, osasun arreta, hezkuntza jasotzeko eskubidea eta euskaraz bizi ahal izateko bermeak ziurtatu behar zaizkio euskal herritar orori.



Inork pobreziaren mugaren azpitik biziraun behar izan ez dezan gizarte politika ororen egokitzapena. Pobreziaren muga dagozkion lurralde barrutiaren urteko BPGa per kapitaren %37,5an zehaztuko da (Esaterako, Hego Euskal Herrian 2018an urteko 12.401,39 euroko diru darrerak bermatu beharko lirateke).

 Gazteria edozein gizarte politiken onuraduna izan ahal izateko zehazturiko baldintza mugatzaileak ezeztatzea. Esaterako, gurasoen etxetik kanpo errolatuta egotea, adin muga altua, kontratua eduki behar izatea...

 Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak bildutako adostasunak aintzat hartzea eta bertatik eratorritako Programa Sozialaren gauzapenerako urrats efektiboak ematea.




Esplotazioari hartzak erakutsi

Ekoizpen eredu kapitalistak gure lan indarra saltzera behartzen gaitu langileak eta menpekotasun hau larrutik ordaintzen dugu. Klase kapitalistaren eta merkatuen etengabeko irabazi nahiak langileon lan eta bizi baldintzak zeharo kaxkartu ditu. Esplotazioa zorroztu dute eta prekarizazio modu berriek langileria osoa mehatxatzen dute, gazteria, besteak beste, neurri hauek inposatzeko lehen katebegi bezala erabiliz. Soldata miserableak, kontraturik ez izatea, praktikaldiak eta praktika kontratuak, beharturiko aldi baterakotasuna eta lanaldi partzialak, azpikontratazioa, autonomo faltsuak... horren erakusle dira.

Egoera hau ahalbidetzen duen legediaren eta erabakien aurka gogor oldartzen gara. Langileriaren bizi baldintzak oro har eta zehazki gazteriak enpleguan duen txertatzea alderantzikatuko dituen urgentziatzko neurri multzoak bultzatzen ditugu. Modu berean, ulertzen dugu esplotazioa mugatzeko ezinbestekoa dela errentak eta soldata arrakala legez mugatzea.


Halaber, lan produktibo eta erreproduktiboko denbora murriztea ezinbestekoa da parte-hartze soziala, aisialdia edota "denbora libre" ahalbidetzeko. Horretarako, alde batetik, saihestezina da lan-jarduna murriztea, hau da, ordu gutxiago lan egitea guztiok lan egiteko; eta beste alde batetik, berdintasunezko balore eta arauetan kontzientziazio eta heziketa lantzea lan erreproduktiboa nabarmentzeko, hori berori emakumezkoen esku bakarrik gera ez dadin, bere garrantzi soziala aldarrikatuz eta lan horretatik eratortzen diren eskubideak berdinduz.

Norabide horretan ondorengo neurriak babestu, bultzatu eta exijituko ditugu.

 Lan bera, soldata bera. Kontratazio ereduaren erabateko berrikuspena adinaren zein generoaren arabera soldata arrakala ezabatzeko, edozein dela egoera hau bermatzeko erabiltzen den azpizjokoa ere.

 1200 gutxieneko soldataren ezarpena eta 35 orduko lanaldia, sektore

publiko zein pribatuan legez ezartzea eta behartzea.

 Gehienezko soldata ezartzeko eta soldata desberdintasunak txikitzeko erregulazioaren sorrera. Eskaintzaren aldeko politika ekonomikoen aurrean, langileria defendatzen duen politika ekonomikoen ezarpena.

 Prekarizazio formula ezberdinen aurkako politika zorrotzak.

 Autonomo faltuen penalizazioa eta ikuskaritza gogortzea.


 Azpikontratazioen mugapena eta jatorrizko enpresaren hitzarmen kolektiboaren aplikazioa.

 Zerbitzu publikoak asetzeko multinazionalak eta korporazio handiak gestionatutako subkontratazioetatik, erabateko publikakiziora edota tokiko kooperatibetan oinarritutako eredura jauzi egitea.

 Aldi baterako kontratuen arautzea eta salbuespen egoeretan soilik legalak izatea. Horrelako kontratuak elkarlotzea legez mugatzea.

 Praktikaldiak duintzeko neurriak hartzea. Praktikaldiek ezin diote ikasleari gasturik suposatu, garrarioa eta dietak enpresaren esku geratuz.

 Egindako lanarengatik kotizatu beharko da eta formaziorako baliagarriak izan daitezten berme errealak zehaztu behar dira, besteak beste.

 Garapen komunitarioa helburu duen ekintzailletza sustatzea, ekonomia zirkularraren ikuspegitik.




Ez gaude salgai


Etxebizitza merkatu kapitalistan bete-betea sartua dagoen merkantzia da. Etxeen eta lurren salerosketa espekulatiboaren bidez hiriak moldatu, klase sozialak segregatu eta zorpetzea, pobretzea eta dependentzia eragiten ditu. Prozesu hau gutxi batzuen mesedetan ematen da: bankuak, erakuntza enpresak, errentistak, immobiliarriak eta hauekin harreman estua izaten duten hainbat alderdi politiko.


Prekarizatutako gazteak eta langile sektore pobretuenak gara etxebizitza eskubidearen ukapena modu gordinenean sufritzen dugunak. Etxebizitza bizi proiektu bat garatu ahal izateko oinarritzko eskubidea da, eta horrela defendatzen dugu. Horregatik eskubide gisa defendatua izan dadin etxebizitza merkatu


kapitalistatik ateratzeko neurri zorrotzak bultzatzearen beharra defendatzen dugu. Etxebizitza negozio gisa baliatu daitekeen bitartean, burbuila inmobiliarioa eta espekulazioa mantenduko dira.

Horregatik ondorengo neurriak babestu, bultzatu eta exijituko ditugu.

 Metro karratuaren gehienezko prezioa zehaztea eta erabili gabeko etxebizitzaren desjabetzea ahalbidetzeko prozedurak sistematizatzea.

 Etxebizitza eskaintza publiko duina bermatzeko alokairu soziala zeharo indartzea. Etxebizitza parke publikoa kalitatezko etxebizitzekin doitzea eta hauen eskuragarritasuna hobetzea, informazioa helaraziz eta prozedurak erraztuz. Alokairu kostuak diru sarreren %15era mugatzea.


 Praktika komunitarioei sustengua eta babes ematea. Bestelako etxebizitza ereduak gauzatu ahal izateko abian jartzen diren herri ekimenei sustengu insituzionala ematea, hauen berri emanez eta traba administratiboak ekidinez.

 Okupazioaren despenalizazioa. Etxebizitza eskubide gisa aitortua eta gauzatua ez den bitartean, erabilerarik gabeko etxebizitzaren okupazioa despenalizatzea.

 Lurralde kohesiorako eta herri txikien biziraupenerako neurriak hartzea, hala nola:

· Herri eta eskualdeen arteko loturak bermatzeko dituen kalitatezko garraio publikoak bermatzea: ordutegi maiztasun eta ibilbide eraginkorrak eta eskuragarritasun ekonomikoa bermatuz. Horretarako beharrezkoa zaigu Euskal Herriko lurralde eremuan garraio publikoan mugitzeko txartel bakarra.

· Herri txikietan gazteok emantzipatzeko eta bizitzen jarraitu ahal izateko neurri bereziak hartzea. Etxebizitza, enplegua, garraioa eta ikasketak aintzat hartzen dituzten proiektu integralen beharra azpimarratzen dugu, Euskal Herriko lurralde oreka mantendu asmoz.

 Lurralde antolaketa ere interes espekulatiboetatik eta kapitalaren atzaparretatik kanpo mantentzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Porlanezko makroproiektu espekulatibo eta txikitzaileak bertan behera gertzea exijitzen dugu. Aurrerantzean eremu estrategikoen gaineko (garraioa, energia...) ereduak eta proiektuak zehazteko eztabaida publikoaren beharra eta herri erabakimen zuzena aldarrikatzen dugu.



Bizitzeko bizi gara

Lanaren bestelako banaketa sozial bat egingo bagenu, bizirauteari denbora gutxiago eskainiko genioke eta askoz baliabide gehiago izango genituzke garapen sozialerako. Tamalez, denbora eta indar gehiena lan egitera bideratu behar dugu. Hortaz, kultura eta aisia bigarren mailako esparru bilakatzen dira, merkantzia huts gisa tratatuak ez direnean.

Are gehiago, bazterketa sozialak, dependentzia egoerak eta bizi baldintza itogarriek muturreko jarreretara eraman gaitzakete eta hala bultzatzen dute kapitalista miserableek. Droga merkatua eta jokoa dira logika maltzur horretan adibiderik argigarrienak. Horren aurrean, aisialdi ereduaren desmerkantilizazioa eta praktika komunitarioen hauspotzea aldarrikatzen dugu.

Denboren eta espazioen erabilera emakumeek prekaritate bikoitza jasaten dugu. Bortizkeria estrukturalak prekariagoak egiten ditu gure bizitzak, espazioak ukatuz, gure gorputzak kontrolatuz eta beldurra bera hedatuz. Autodefentsa feminista dugu denbora, espazio, gorputz eta bizitzen birjabetzerako lanabes nagusia.

Kultura eta aisialdia garapen individual eta kolektiborako ezinbesteko esparru gisa defendatzen ditugu eta horregatik adierazpen herrikoiei oro sustatzea ezinbestekoa dela deritzogu.

Horregatik ondorengo neurriak babestu, bultzatu eta exijituko ditugu.



Jokoaren aurkako neurri mugatzaileak zorroztea, joko aretoen ezabapen fisiko eta birtuala bultzatzeko legedia bultzatuz.



Kultur eta musika adierazpen herrikoiei babesa. Espazio publikoaren erabilera erraztea eta hastapenetan dauden sortzaileei beharrezkoak dituzten bitartekoak erraztuz (instrumentuak, materialak, lokalak...).



Mugimendu feministari aitortza erreala egitea eta eragile gisa aintzat hartzea ondorengo proposamenetan.



Heziketa feministan eta prebentzioan inbertsioa egitea.



Autodefentsa feministaren hedapenerako planetan.



Artatzeko beharrezkoak diren bitarteko juridiko, ekonomiko, psikologikoak erraztea edota moldatzea.



Ekintzek dute hitza

Gezur bat, mila aldiz errepikatuta ere, ez da egia bihurtzen. Beharbada ohikoa bilakatuko da, normala. Baina lehenago edo beranduago, errealitate soziala gailentzen da. Orduan eraikitako ideologia alienatzailea, sortutako aspirazio eta desioak, irudikatutako bizitza ibilbide ankerra... naie gaztelu baten moduan eraitsi daitezke. Hori da gure belaunaldiaren patua. Heltzear den matxinada gara.

Arrazoiak eta aldarriak soberan ditugu. Badakigu inork ez diola bere pribilegioei onez onean uko egiten, eta are gutxiago ume moko batzuek hala eskatuta. *Hauxe da dagoena* izan behar bada agintzen duen axioma, alternatiba oro ezkutatu eta zokoratu beharra dago; borroka kolektibo oro denboran ito, autoritarismoaren bidez blokeatu edota bortizkeriaren bidez erreprimitu behar da.

Horregatik oinordetzan jaso ditugun lorpen sozial guztien irakaspen historikoa aldarrikatzen dugu: borroka dela bide bakarra. Dagokiguna eskuan hartzera goaz.



ernai.eus

2019ko ekaina

